

**Igone Zabalaren hitzak**  
(2009-03-23)

Egun osoan zehar jaso ditugu, uholde bat bezala, Inaki ezagutzeko zortea eta ohorea izan duten asko eta askoren mezuak.

Euskal Filologia Saileko kideengandik, EHUko beste saila askoren kideengatik, Deustuko Unibertsitatetik, Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatetik, EIMA batzordearen barruan Iñakirekin euskara tekniko-zientifikoa azken urtean lantzen aritu direnengandik.

Denok sinistu ezinik Iñaki joan zaigula, denak beren samina eta elkartasuna familiari helarazi nahian.

Iñaki lankide izan dugunok gutako bakoitzarengan aztarna ezabaezina utzi duen adiskide on bat joan zaigula sentitu dugu.